

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 21/2024 Erabakia, urtarrilaren 30ekoa. Behin betiko onestea Kuartangoko udalerrirako egindako Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari lotuta dagoen hiri lurzorua mugaketari

Foru Gobernu Kontseiluaren urriaren 23ko 694/2023 Erabakiaren bidez, behin-behineko onespena eman zitzaion zen Kuartangoko udalerrirako Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari lotutako hiri lurzorua mugaketari, zeina hiri antolamendurako plan orokor berria jasotzeko egin baitzen.

Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 29ko 2/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren Foru Arauaren testu bateginaren 11. artikulua 4. apartatuaren arabera, Arabako Foru Aldundiak entzunaldia eman behar die dagokien udalei, gehienez ere 15 eguneko epean egoki deritzena jakinaraz dezaten, eta udalak ez du inolako desadostasunik adierazi hartutako ebazpenaren inguruan.

Bestalde, Diputatuen Kontseiluaren irailaren 8ko 672/2004 Erabakiak behin betiko onetsi zuen Kuartango udalerrirako dagokion Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari lotutako hiri ondasun higiezinaren lurzorua eta eraikuntzen balioztapen txostena.

Aurrekoaren ondorioz, hiri izaera berriarekin bat datorren katastro balioa eman behar zaie udalerrirako hiri eremuari atxikitako lurzatiei, zeinak hainbat herrigunetan kokatuta baitaude. Katastro balio horrek bat etorri behar du Diputatuen Kontseiluaren irailaren 8ko 672/2004 Erabakiaren bidez onetsitako indarreko balioztapen txostenean onetsitako balioekin.

Horregatik, bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren foru diputatu arduradunak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onespena ematea, honekin batera doazen planoen arabera, Kuartangoko udalerrirako ondasun higiezinaren gaineko zergari lotutako hiri lurzorua mugaketari, zeina hiri antolamendurako plan orokor berria jasotzeko egin baitzen.

Bigarrena. Hori gorabehera, kontuan eduki behar da Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 29ko 2/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren Foru Arauaren testu bateginako 3. artikulua 2.b) apartatua ezarritakoa, hiri izaerako eraikinek okupatzen dituzten herrigunetik kanpoko lurzoruen tratamendurako.

Hirugarrena. Hiri izaera berriarekin bat datorren katastro balioa ematea udalerrirako hiri eremuari atxikitako lurzatiei, indarrean dagoen balioztapen txostenean (Diputatuen Kontseiluaren irailaren 8ko 672/2004 Erabakiaren bidez onartu zen) dauden zerga poligonoen katastro balioekin bat etorritako, hargatik eragotzi gabe 2024an onetsiko den Kuartango udalerrirako balioztapen txosten berrian esleitzen diren katastro balio berriak.

Laugarrena. Erabaki honen ondorioz ematen diren egintzak interesdunei jakinaraziko zaizkie, Hiri ondasunen katastro balioak berraztertzeko eta aldatzeko prozedura arautzen duen Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 22ko 1080/1992 Foru Dekretuak 17. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Bosgarrena. Erabaki hau ALHAOn eta lurralde historikoko egunkari zabalduenetan argitaratuko da. Gainera, jendurrean jarriko da 15 egunez, interesdunek egoki iritzitako erreklamazioak jar ditzaten. Agiria Kuartangoko Udalaren bulegoetan jarriko da jendurrean, halaxe xedatzen baitute Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 29ko 2/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Ondasun Higiezinaren Gaineko Zergaren Foru Arauaren testu bateginak 11. artikulua 5. apartatua eta hura garatzen duen Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 15eko 1080/1992 Foru Dekretuak 7., 8. eta 9. artikuluetan.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urtarrilaren 30a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria

M^a JOSÉ PEREA URTEAGA